



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2016KO IRAILAREN 20KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2016.09.20
Ordua: Arratsaldeko 17:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Mentxu Peña Lizarazu and.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Agimaure S.L. enpresaren nabearen egoera.
- 3.-Udal Plan berriari buruz.
- 4.-Erriberriko Udalak igorritako mozioa, komunikabideetako kontaktuen iragarkiei buruz.
- 5.-Erriberriko Udalak igorritako mozioa, errefuxiatuei buruz.
- 6.-Erriberriko Udalak igorritako mozioa, Euskal Telebistari buruz.
- 7.-Oroimenaren aldeko emakumeak: diru laguntza eskaera.
- 8.-Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M.Jesus Echeverria Agesta andreak jarritako errekurtsua Larretako bidearen mugaketa akordioaren aurka.
- 9.-Turismo Batzordearen proposamena.
- 10.-Ekaitza Elkartek aurkeztutako eskaera.
- 11.-Euriek eta uholdeek hondatutako bideak moldatzeko esleipena
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko abuztuaren 26ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 7. puntuan falta da Ander Almandoz Indakoetxea jaunak ateri zela bilera aretotik adieraztea eta gaia bukatu ondoren sartu zela ere.

2.-AGIMAURE S.L. ENPRESAREN NABEAREN EGOERA.

Kontuan hartuz Agimaure S.L. enpresak duen nabearen egoera.

Ikusirik enpresak Udalari ahalmena eman ziola hartu beharreko neurriak hartzeko.

Ikusirik Udaleko abokatuaren txostena.

Kontuan hartuz lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 87.1.b artikulua.

Ikusirik Arantzako Arau Subsidiarioen 31. artikulua eta hurrengoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Agimaure S.L. enpresari 5. poligonoko 415. lur zatian dagoen eraikuntzak segurtasunari, osasungarritasunari, apaintasun publikoari eta bizigarritasunari dagokionez behar den egoeran mantentzea, behar diren lanak eginez egoera hori kontserbatu edo konpontzeko eta beharrezkoak edo eskagarriak diren zerbitzuen hornitzeko.

3.- HIRIGINTZAKO UDAL PLAN BERRIARI BURUZ.

Ikusirik indarrean dauden gaur egungo hirigintzako arauak.

Ikusirik horiek berritu eta eguneratzeko beharra.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udal Plan berria egiteko onestea eta behar diren tramiteak hastea.
- 2) Nafar Gobernuari diru laguntza eskatzea lan hori burutzeko.

4.-ERRIBERRIKO UDALAK IGORRITAKO MOZIOA, KOMUNIKABIDEETAKO KONTAKTUEN IRAGARKIEI BURUZ.

Kontuan hartuz Erriberriko Udalak igorritako mozioa erdara hutsez dagoela,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Akordioa euskaraz ere bildatzeko eskatzea.

5.- ERRIBERRIKO UDALAK IGORRITAKO MOZIOA, ERREFUXIATUEI BURUZ.

Kontuan hartuz Erriberriko Udalak igorritako mozioa erdara hutsez dagoela,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Akordioa euskaraz ere bildatzeko eskatzea.

6.- ERRIBERRIKO UDALAK IGORRITAKO MOZIOA, EUSKAL TELEBISTARI BURUZ.

Kontuan hartuz Erriberriko Udalak igorritako mozioa erdara hutsez dagoela,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Akordioa euskaraz ere bildatzeko eskatzea.

7.-OROIMENAREN ALDEKO EMAKUMEAK: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Oroimenaren aldeko emakumeen taldeak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Azkoiengo herrian eskultura bat egiteko hainbat emakumeei esker ona emateko.

Kontuan hartuz 2016ko aurrekontuan ez dela partidarik horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Oroimenaren aldeko emakumeen taldeari diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

8.-TURISMO BATZORDEAREN PROPOSAMENA.

Mentxu Peña Lizarazu andreak, Ingurugiro, Baserrigintza, Turismo eta Euskara Batzordeko burua, ondorengo proposamena azaldu du: herrian zehar bide bat markatzea adin guztietako pertsonak eta bizilagunak erabiltzeko moduan (ezinduak, itsuak, umeak...) eta panel baten bidez seinalizatu eta bankoak ere jarritz. Proposatuta du eskolatik Txolberro aldeko bidea moldatzea eta Larretako Simoneko Bordarako bidea ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako bideak moldatzeko tramiteak hastea.

Metxu Peña Lizarazu andrea ateri da bileratik.

9.-JOSE ANTONIO BEREAU MACICIOR JAUNAK ETA M. JESUS ECHEVERRIA AGESTA ANDREAK JARRITAKO ERREKURTSOA LARRETAKO BIDEAREN MUGAKETA AKORDIOAREN AURKA.

Arantzako Udalak, 2016ko uztailaren 22an egindako bileran, Larretako alderdiko bidearen mugaketa egiteko akordioa hartu zen, hori berreskuratzeko herri ondasun bezala, nahiz katastroko planoetan agertu.

Akordioaren aurka, epearen barne, alegazioa aurkeztu dute Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M.Jesus Echeverria Agesta andreak, nahiz berraztartzeko errekurtsioa aipatu.

Ikusirik Udaleko abokatuen txostena.

Kontuan izanik akordioaren aurka ez dagoela errekurtsorik jartzetik baina bai alegazioak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M.Jesus Echeverria Agesta andreak aurkeztutako alegazioa ez onartzea.
- 2) Espedientearekin jarraitzea akordioaren arabera.

10.-EKAITZA ELKARTEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.

Irakurri da Amaia Apaolaza Goena andreak aurkeztutako idatzia, Ekaitza Elkartearen izenean, pilota eskolari buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ekaitza Elkarteari arduradun bat izendatzeko eskatzea giltza emateko. Giltzaren hartzailea erantzule izanen da eta ezin izanen du kopiarik egin edota bertzei eman Udalak jakin gabe.
- 2) Ekaitza Elkarteari entrenamendu eta partiduen egutegia eta ordutegia aurkezteko eskatzea.
- 3) Ekaitza Elkarteari jakinaraztea kartel bat jarriko dela frontoian lehentasuna emanez pilota entrenamenduei eta partiduei baina ez ixtea bertze inor ez sartzeko.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea itoxurak moldatuko direla eta ate gaineko sarea tentsatu ere.
- 5) Eskatzaileari jakinaraztea aldagelak hartu bezala utzi beharko direla, garbi eta txukun.
- 6) Ekaitza Elkarteari eskatzea argiak itzaliak uzteko frontoia erabili behar ez denean.

11.-EURIEK ETA UHOLDEEK HONDATUTAKO BIDEAK MOLDATZEKO ESLEIPENA.

Estatuak diru laguntza eman du hainbat bide moldatzeko. Ebazpenaren arabera lanak esleitu behar dira epe baten barnean.

Kontuan hartuz falta direla moldatzeko bide hauek: Aientsako bi bide, Zerrado, Lababuruko Borda, Mariurdiñeneko Borda-Arizpe eta Beratsekun alderdikoak.

Kontuan hartuz lanen aurrekontua.

Kontuan hartuz ez dagoela partidarik lanak burutzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2016ko aurrekontuaren 1. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 2) Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.
- 3) Ondorengo enpresei gonbidapena igortzea urriaren 7rako proposamenak aurkezteko: Javier Alzugaray S.L., Mikel Telletxea Juanena, Sasoi eraikuntzak S.L., Mikel Ubiria eskabazioak S.L., Peio Aginaga Macicior eta Iñaki Taberna Iturria.

Mentxu Peña Lizarazu andrea bueltatu da bilera aretora.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 115. ebazpenetik 120. ebazpena arte.

13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

14.-AMALIA TELLECHEA ECHEVERRIA AND.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Amalia Tellechea Echeverria andreak, Garaiko Borda alderdian, 8 bagoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka 5. poligonoko 90.lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Amalia Tellechea Echeverria andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

**15.-JUSTO LARRALDE ORDOQUI JN.: OIHAN PROBETXAMENDU
ESKAERA.**

Justo Larralde Ordoqui jaunak, Beratsekun alderdian, pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa 3. poligonoko 90, 122 eta 125. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Justo Larralde Ordoqui jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



